




## Txotxongilo jaialdia ibilaldiaren erdian

**TOLOSA** ▶ Bost saio egingo dituzte gaur Leidorren, Ferialekuan, Kasinon eta Kultur Etxean

**EUSKALDUNEN SAIOA** ▶ «Ez dago adinik txotxongiloekin gozatzeko», dio Taun Taun Teatroko Azkaratek ▶ 3



Kolonbiako Hilos Magicos taldearen *Sombras y sombrillas*. E. EZEIZA



## Herritarren «omenaldi beroa» jaso du Anjel Arrospide aizkolariak

**LEABURU** ▶ Laugarren postua eskuratu du Nazioarteko Aizkolari Txapelketan; «herriaren izena nazioartean zabaltzeagatik eta aizkoran lortutako emaitza bikainengatik» egin diote omenaldia ▶ 6

**ALEGIA** ▶

## ‘Alegiari buruz kontu kontari’ hitzaldiarekin agur Azaro Kulturalari

Joxe Gastesik herriaren historiaz jardungo du 19:30ean Kultur Etxean ▶ 4

**MAIDER GOÑI** ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

## «Lan munduan asko dago egiteko euskararen normalizazioan»

Kontseiluak eta Leitzaldeko Udalek hitzarmena sinatu zuten atzo ▶ 7



N. GARZIA

## GUTUN@K ▶

Historia  
berriazteko  
saiakera  
frustratua

Oraingoan alkate jauna *in fraganti* harrapatu zaituztela aitortu beharra dago, gaztelera ez esan ohi den moduan «donde dije digo y donde digo diego» estrategia erabiliz, zintzotasunez ordezkatu beharko zenituzkeen herritarrei, errealitatea desitxuratzeko saiataz egatik. Aurreko azaroaren 19an, DVko kazetariak gerontologikoaren aferan kontzientzia lasai ote zenuen eginiko galderari, zera erantzun zenion: «Erabat. Diputazioak hartutako itxieraren erabakiaren aurrean aukera ezberdinak genituen:

1: «Diputazioarekiko aurkako jarrera irekia azaldu»; zeharka, plataformako kideek bide hau hartu genuela ikusi arazten saiatzen da, okerreko bidea zelako beraiek baztertutakoa

dela adieraziz. Eta aldi berean, Eibarko Udalak (PSOE) hartutako bide bera izan zen, noski hau azaltzea interesatzen ez zaienez imintziorik egiten ez badu ere. Eibarkoei ondo joan zaiela esan behar da gainera. Tolosako zentroaren itxieraren kontrako erabakia defenditzea baino zailagoa izanda ere, aurretik zuten kalitateko eta erdigunean kokatutako gerontologiko publiko bat mantentzea lortu baitute. Datozen hauteskundeetan Gizarte Ongizateko diputatuaren alderdi politiko berdinekoa (PNVkoa) ez den beste alkate-gai bati eman beharko ote diogu bozka orduan?

2: «Ez ezer egin, eskumena Udalararena ez zela argudiatuta». Esaten duenaren kontra, hauxe izan da Udalak hartutako jarrera. 2005eko martxoan, udaletxeko areto nagusian bildu ginen jendetzak gogoratzen dugun moduan. Eta horrela izan zela egiaztatuta nahi duenak, egun hartako egunkarietako kronika irakurtzea beste-

rik ez du. 2005eko martxoaren 5eko egunkarietan, alkatearen «Itxieraren ondoren Diputazioarekin lortutako erabakiek oso harro eta kontentu gaude» adierazpenak irakur daitezke. Honetaz gain, ardura gainetik nola ahala kendu ahal izateko, behin eta berriz erabili duen esaldia da «eskumena Diputazioarena izanik ezin diezaiokegu Udalarari ardurarik eskatu».

3: Azken aukera moduan, alkatearen esanetan Udalak hartutako bide aurkezten du: «Tolosak azkenean Gerontologiko berri bat edukiz zezan helburuarekin, tinko lan eginez aukera posiblearen bila lanean aritzea». Alkate jauna, gauzak horrela ez direla izan esan behar dizugu. Euskal Herria plazako gerontologikoaren defentsan, *ordezkari* politiko guztiak bakkarik utzi gintzuenean, zeuden aukeretatik okerrena zela jakinda ere, plataformakoak izan ginen gerontologiko berri baten alde lan nekezari ekin giononak.

Orain, aukera hau, zegoen bide bakarra, onena eta zuen izerdiaz lortutakoa balitz bezala saldu nahi badiguzue ere. Kalitatekoa, publikoa eta erdigunean kokaturikoa gerontologikoa eskatzen zuten 4.000 herritarren sinadurak, jendetza bildu zituen manifestazioak eta herritar askoren oihuak entzuteak derrigortu zintuzten, zuen Alondigako erresidentziaren *aurkezpena* egitera egitera, magoak bere kapelutik untxiak atera ohi dituen modu berean. Baditugu gainera gure asmoak, *untxia* garai aproposagoan ateratzeko ez ote zineten ari zain, hauteskunde bezperetan adibide.

Zuek sortutako arazoaren konpontzaile, mago salbaitzaileak bazinate bezala. Horren modu ilunean —jarrera hau ezin daiteke diskrezioarekin edota protagonismoa nahi ez izatearekin nahastu—, aurkeztutako proiektu berri honek ondorio argiak dakartzkigu Tolosaldeko herritar guztioi. Kalita-

tekoa, erdigunean kokatutakoa eta publikoa zen zentro batengatik erdigunean kokatutakoa bai, baina gainontzeko ezaugarriak eduki ez ditzakeen beste zentro batengatik aldatzea edo trukitzea.

Erdigunean kokatutakoa, kalitatekoa eta publikoa izaten jarrai zezakeen gerontologikoaren historiari badu ezaugarri berdinak eduki ditzakeen egoitza berri batean bihurtzen deneko amaiera. Noski, beraien interesen gaitetik, ordezkatzen dituzten herritarren interesak gailentzen dituzten politikariak baldin baditugu.

Gainontzeko guztia, historia komenientziagatik berriro datzi, aldatu nahi izatea besterik ez da, egun daukagun errealitate krudelaren ardura zuzena izan duen pertsonaren ahalegina, eta hau oso lasai ez egotearen adierazlea besterik ezin daiteke izan.

MANU LEUNDA ▶ EUSKAL HERRI  
PLAZAKO GERONTOLOGIKOAREN  
ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN

## GIZARTEA ▶

Laskorain Ikastolaren  
Merkatu Txikirako  
material bilketa abian

Abenduaren 26tik aurrera jarriko dituzte salgai produktuak; Ekuadoroko eta Saharako proiektuak laguntzeko asmoa dute

## ERREDAKZIOA

Elkartasunari buruzko Gabonetako kanpaina dela eta, aurreko urteetan bezala, aurtengo Merkatu Txikia antolatuko du Laskorain Ikastolak. Hala, atzo goizean hasi ziren bertan salgai jarriko duten materiala eskatzen batxilero bateko neska-mutilak Tolosako dendetan.

Oraingoan, *Eutsi elkartasunari* lelopean antolatu dute kanpaina eta Merkatu Txikiaren bidez, bi helburu lortu nahi dituzte: alde batetik, Ekuadoroko Baba lurraldean proiektu integrala bultzatu nahi dute: antolaketa, osasuna, heziketa, lana, ekoizpena eta salmenta bilduko dituen. Horretarako bi ikasle ohien eta Ibaratik Misio taldearen laguntza izango dute.

Bestetik, Tolosaldera udan Saharako haurrak ekariz hain ezaguna egin den Sahara bizi Tolosaldea Sahararekin



Produktuak erosiz, laguntzeko aukera izango da. IRATXE ETXEBESTE

taldearekin batera, Saharako Aaiun Wilayan aisialdirako zentru bat irekitzeko bideratuko dute bildutako dirua.

Ondorengo egunetan Tolosako dendetan biltzen dituzten produktuak abenduaren 26tik

aurrerera jarriko dituzte salgai Tolosako Kultur Etxean jarriko duten Merkatu Txikian.

Laskorain Ikastolatik merkatarien parte-hartzea espero dute, eta lagunduko dutenak eskertu nahi dituzte.

## GIZARTEA ▶



## Ahotsak-en sinadura bilketa

**Erredakzioa** ▶ Iragan larunbatean Ahotsak plataformakoak sinadurak biltzen egon ziren. Halaber, hurrengo larunbatean, Bilbon antolatu duten ekitaldira joateko autobusen berri eman zuten. Ibarra, Amezketza, Alegia, Villabona, Anoeta, Irura, Ikaztegieta, Altxo eta Tolosako Kultur Etxean eman beharko da izena, eta Tolosatik, Santa Klaratik irtengo da autobusa 09:30ean. ENERITZ MAIZ

## GIZARTEA ▶



## Gerontologikoaren auziaz

**Erredakzioa** ▶ Euskal Herria Plazako Gerontologikoaren Aldeko plataformak mahai informatiboa jarri zuen larunbatean. Bestalde, atzoko osoko bilkurako gai zerrendan gerontologikoa ez bazegoen ere, plataformako hainbat kide bertan izan ziren. E. MAIZ

KULTURA ▶

# Txotxongiloak dantzan

Titirijai 2006 ibilbide erdira iritsi da dagoeneko; gaur ere, egunean zehar bost saio izango dira haur eta familientzat, beste bat berriz, helduentzat



Colombiako Hilos magicos taldearen *De sombras y sombrillas* emanaldiko une bat, atzo. E. EZEIZA



Bergarako Taun Taun Teatro antzerki taldearen *Batuta* saioaren irudietako bat. HITZA

ITXASO AZKARATE ▶ TAUN TAUN TEATRO TALDEKO ZUZENDARIA

## «Txotxongiloekin gozatzeko ez dago adinik, denoi gustatzen zaizkigu»

Hamabost urte inguru daramatza Taun Taun Teatro antzerki talde bergararrak herriz herri, bere txotxongilo emanaldiekin. Itxaso Azkarate, Karlos Odriozolarekin batera, taldeko zuzendaria da, eta gaur aurkeztuko duten obraren egilea ere bai. Saioa Ferialekuan izango da, 20:30etan eta 22:30etan. **Zer da 'Batuta' antzezlanean ikusiko duguna?** Munduko edozein geltokitan egon daitekeen pertsona bati, batuta ateratzen zaio maletatik. Hala, musika notekin eta jokoekin uztartuz, bidaia bat aurkezten du. Familiarentzako an-

tzezan bat da, haur nahiz gurasoentzat. **Teknologia berriek horrenbesteko indarra duten garai hauetan erraza al da haurren arreta txotxongiloekin lortzea?** Bai-bai, oraindik ere arrakasta dute, txotxongiloek xarma berezia dute, eta ez dago hirudimentsiotako tramankulorik hau gaindituko duenik. **Nola erakartzen da, horrenbesteko adin ezberdintasuna duen publikoa?** Txotxongiloak marrazki bizidunak eta komikiak bezala dira, nahiz eta helduak izan,

hala ere denoi gustatzen zaizkigu. Ez dago adinik hauentzako. **Zeintzuk dira zorrotzagoak, helduak ala haurrak?** Umeak ez dira ixiltzen, eta zailagoa da hauen arreta erakartzea.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Elkarrizketa.** Gerra Zibila bizi izan zutenen testigantzak irakurtzeko aukera, gure webgunean.

### ESTI EZEIZA

Konturatzerako, 24. Nazioarteko Txotxongiloen jaialdiko erdugunera iritsi gara. Gaurkoan, familia eta haurrentzako bost emanaldi ezango dira, eta helduentzako bat. Saio gehienetan orain dela urte asko idatzitako istorioak berreskuratuko dituzte, eta egungo haurtxoentzako moldatu.

### LEIDOR ARETOA

**12:00etan eta 15:00etan.** Costa Ricako Cucaramaca antzerki taldeak *Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes* lana eskainiko du. Ordu bete irauten duen emanaldi honetan, gizakiek bere gaztaroan harrapatu zuten periko zahar eta jakintsu baten, Perico de los Palotesen bitartez kontatzen dute istorioa.

**18:30ean.** *Pedro y el Lobo* antzezlanean datoz Titeres Et cetera taldekoak Andaluziatik (Espainia). Kontakizunean, denbora laburrean suspensetik umorera doazen une dramatiko ezberdinak gertatzen dira. Bere kolore musikal desberdinagatik modu argian eza-gutzen diren pertsonaien bidez irudikatuz.

### KASINOA

**11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.** Andaluziako (Espainia) La Gotera de la Azotea

taldeak *La gallina Churra* antzezlana eskainiko du. 20 urte-tik gorako esperientzia du talde honek. Antzezlana honetan, oilo beldurti batek Kulebra andreaz ezkatutzeko nola egin dezakeen erakutsiko dute.

### KULTUR ETXEA

**10:30etan, 15:00etan eta 17:00etan.** Varna Pupp Theatre Bulgariatik dator *Pulgarcita* istorio ezaguna aurkeztuko. Hans Christian Andersen-en liburu ospetsuan oinarritutako hitzik gabeko ikuskizuna da Erpurutxo. Idazle handiaren mundura eginiko musika-bidaia bat bezala diseinatutako ikuskizuna.

### FERIALEKUA

**11:00etan eta 15:00etan.** Naku antzerki taldea Venezuelatik dator, eta *Aguazul* lana taularatu du. Ariadna, antzezlanean protagonista zappi urteko neska bat da. Ingurumeneko Ahotsaren lehiaketan lehen postua irabazi du bere eskolan eta hizki oso handitan bere izena agertzen den diploma bat du. Hain zoriontsua da, non guztiek jakitea nahi duen, eta kaletik aurkitzen dituen urhodietatik ohiukatzen du.

### FERIALEKUA

**20:30etan eta 22:30etan.** Taun Taun Teatro talde euskaldunak *Batuta* lana eskainiko du gaur. Hau izango da helduei zuzendutako eguneko saio bakarra. Geltoki bat, iristen den tren bat, jendea alde batetik bestera, maletak batetik bestera, berriro irteten da tren, jende gehiago, eta azkenik, maleta bat bakarrik geratzen da. Maleta irekitzen da, eta bere barrutik Batuta ateratzen da.

### Antzele izateaz gain egile ere bazarete...

Bai, hori da politena, lan guztia guk egiten dugu: istorioa asmatu, txotxongiloak eraiki eta antzeztu. Prozesu guztian hartzen dugu parte.

### Zein desberdintasun daude

### iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
**Autoa.** Ford Escort 1800. 16V. 9 urte. Egoera ezin hobean. Deitu zenbaki honetara: **687 22 57 07.**  
**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18 lantak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu **943 65 41 43** telefono zenbakira.

### iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Sukaldariak** behar dira ospitaleetan eta ikastetxeetan. **943 31 37 82.**  
**Gidariak** behar dira Erakunde Publikoetan. **943 31 37 82.**  
**Administrazio langileak** behar dira Anoetan, Erreterian, Irunen eta Hernanin. Telefono zenbakia: **943 31 37 82.**

## ALEGIA ▶ KULTURA

# Joxe Gastesi, herriko kontu eta ohituretaz

Azaro Kulturalarekin bukatzeko gaur hitzaldia egingo dute Kultur Etxean

## NEREA URBIZU

Gaur 19:30etik aurrera Joxe Gastesi alegiarrarekin Alegiaz ariko dira Alegiko Kultur etxean. Azaro Kulturalaren baitako azken ekitaldia izango da honakoa. *Alegiari buruz kontu kontari* deitu diote hitzaldi

honi, Joxe Gastesik berak esan duen bezala, «XX. mendeko lehenengo erdialdean izandako gertaerak, bizimoduak eta ohiturak aipatuko baititub». Bi atletan banatuko du hitzaldia: 1900 eta 1936 urte bitarteko garaia, eta gerra ondorengoa, 1950 urtera arte.



XX. mendeko erdialdean Erbeta frontoia bazegoen ere, herriak aldaketa asko jasan dituela dio Joxe Gastesi alegiarrak. HITZA

Joxe Gastesik XX. mendean bizi ez zituen urteak aitona-monek eta izeba-osabek konstatutakoak dira, «gauza asko kontatzen baitzizkiguten. Alegia pobrea zen, baina nortasun handikoa».

Hitzaldian klasismoaren inguruan ariko da Joxe Gastesi, «garai bateko egitura sozialaren baitan, klasismoa baitzegoen Alegian: hori desagertu egin da. Herriko bizilagunetaz ere hitz egingo dut, anekdotak ere izango dira... Denetik pixka bat».

## Argazki erakusketak

Astelehenaz geroztik Kultur Etxean idi probekin lotutako argazkiak daude ikusgai, abenduaren 5era arte. David Apreak lortutako argazkiak dira han ikus daitezkeenak.

## ALTZO ▶

## Artikulazioen higaduraz gaur, udaletxean

*Nola eraman artikulazioen higadura* hitzaldia izango da Altzoko udaletxean gaur, 17:00etan, aulas kuxkak antolatuta. Urteen joanak hezurretan uzten dituen aztarnak ezagutu eta jarraibideak markatu, funtzionatu ezinezko egoerak, eta abar baliatzen jakin eta bizi-kalitatea hobetzeko aholkuak emango dituzte.

## PILOTA ▶

## Ugaitz Renobales pilotaria Egiako torneoa irabazle

Lasa-Garmendia eta Renobales-Irureta pilotariak izan ziren Egiako finalean. Aurre-ra-Saiaz pilota eskolako Renobales eta Zazpi-Iturriko Garmendia izan ziren hartan, baina garaipena alegiarraren bikotearentzat izan zen, 22-13 emaitzarekin. Senior mailako binakako txapelaz gain, Egiako torneoko pilotari onenari saria jaso zuen.



Renobales, eskuinean. HITZA

## ALEGIA ▶

## 'Hermanos' film danimarkarra gaur zine-kluban

Gaur, asteazkeneko bezala, Alegiko Gaztetxean zine-klubak eskainitako filma jarriko dute. Gaurkoan, *Hermanos* pelikula izango da 21:30ean. Zuzendaria Susanne Bier danimarkarra da. Honetan, gerra, samina eta maitasuna ikus daitezke: bi anaien arteko harreman berezian ikusi ahal izango dira hiru osagai nagusiak.

## KOMUNIKABIDEAK ▶

## Tokiko telebistak lehiaketara, hilabeteko epean

Eusko Jaurlaritzak hilabete baino lehen aterako ditu lehiaketara tokiko telebistak. Zehaztu ditu 15 esparrutan banatuko dituen launa tokiko telebisten lizentziak lortzeko bete behar diren baldintzak. Orain, lehiaketarako epea irekitzeko ardura dauka Jaurlaritzak. Lizentziak lortzeko lehentasuna dute Udalek, hala eskatuz gero.

## UGARTE ▶ GIZARTEA



## Gaztain erreekin batera, trikitixa eta panderoa

**N. Urbizu** ▶ Ugarteko elkartean IV. Gaztain jatea izan zuten larunbatean. Bertaratu ziren 60 lagunek txekor saiheskia, gaztainak, gazta irasagarrekin eta kafea afaldu zuten. Ondoren, trikiti-

xa eta pandero soinuez gozatu ahal izan zuten afari-moduan zeudenek, Xabier Urretabizkaia trikitilaria eta Iñaki Amundarain pandero-jolea ere han izan baitziren. HITZA

Argi eta egoki idazteko, **ESTILO LIBURUA**  
oinarrizko tresna

ZURE LIBURU DENDAN  
**25 €**

**berria**

ESTILO LIBURUA

Harpidedunentzako eskaintza berezia: **20 €**

Eskariak egiteko  
Tel.: 943 30 43 45  
harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, **BIZI EUSKARAZ** **berria**



# euskaltel

## ZURETZAT

Birsortzen ari gara beti. Aurrera egiten, aurrerapausoak behin eta berriz ematen. Egunero, pauso oro, mugimendu oro, beti aurrerantz. Horrelakoak izan gara beti. Gure irudi berria da. Zuretzat. Kontua ez da zertarako egiten dugun aurrera, norentzat baizik.

- Zuntz Optikoa  
Finkoa+TB+Banda Zabala
- Mugikorra



## LEABURU ▶ GIZARTEA

## MADDI SOROA

«Leabururen izena nazioartean zabaltzeagatik eta aizkora lorturiko emaitzengatik» omenaldi beroa jaso zuen Anjel Arrospidek leaburuarren eskutik pasa den igandean.

«Pozik eta gustura» agertu zen Anjel Arrospide, espreski berarentzat egindako omenaldiarekin. Haren hitzen arabera, «oso pozik nago eta eskerrak eman nahi dizkizuet herritarrei eta Udalari». Halakorik merezi ez duela uste du, ordea, aizkolariak; izan ere zera adierazi zuen umil bezain apal «ez dakit bada nik horrelako zerbait merezi dudana».

Hala uste dute, ordea, 180 lagunek, guztien artean ekitaldiz beteriko eguna borobila burutu baitzuten. Tolosaldeko dultzaineroak, meza, herriko dantza taldea eta nola ez, herri kirolak.

Aimar Irigoien harri-jasotzaileak bere buruari jarritako erronka gainditu zuen, 200 kiloko pascualsoro harria 3 minututan altxatzea, alegia. Anjel Arrospideren txanda izan zen ondoren, 72 ontzako enborra

# Omenaldi beroa jaso du Anjel Arrospidek

180 herritar izan ziren Arrospide omentzen, tartean, herriko alkatea, dantzariak, kirolariak edota bertsolariak



Anjel Arrospide, bere omenaldian prestakuntzan aritu diren lagunez inguratuta. HITZA

ebaki zuelarik. Jarraian, Esnaola anaiak eta Azurmendi aizkolaria aritu ziren ikuskizuna eskainiz.

Kirol emanaldiak herri bazkariari eman zion pasu. Ez zen Nolanahiko bazkaria izan, ordea, 180 herritar bildu baitziren mahaiaren bueltan. Bertan izan ziren Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak, baita Saioa eta Alabier trikitilariak ere giroa alaitzen.

Gogoratu, omenaldi ekitaldian, herriko dantzarien agurra jaso zuela Arrospidek, baita opari sorta ere Txaramako elkarte, Leaburuko Zazpi Bide elkarte, Larresoroko herriko elkarte eta baita Aimar Irigoienek eskutik ere.

## Laugarren postuaz etxera

Laugarren postua eskuratu du Anjel Arrospidek Nazioarteko Aizkolari Txapelketan; 31 punturekin, O'Toole, Coffey eta Nazabal izan baititu aurretik. Lan motzetan australiarrak izan dira beraz garaile. Arrospidek azaldutakoaren arabera, «ahal nuen gutzia egin nuen, baina ez zen garaipenik suertatu».

## GAZTELU ▶ GIZARTEA



## Beldurrezko gaua, «oso arrakastatsua»

**Erredakzioa** ▶ Pasa den larunbatean beldurrezko eta fantasiako gaua izan zen Gazteluko elkartearen. Bertan izan ziren Tinieblas eta Rebordinos laburmetraiak eskaintzen. Antolatzailak «oso-oso gustura» agertu dira, uste baino harrera hobea izan baitu ekitaldiak. Beldurrezko gauak 21:00etan izan zuen hasiera afariarekin. Ondoren, Tinieblasek bere laburmetraiak aurkeztu zituen eta jarraian *Tu madre se ha comido a mi perro* eta *Saw* filmak eskaini zituzten. HITZA

## IBARRA ▶

## Etzi izango da azken eguna Kultur Truke Hamabostaldian

## ERREDAKZIOA

Etzi itxiko ditu atek Kultur Truke Hamabostaldiak. Hori gertatu aurretik, ordea, bi ekitaldik hartuko dute toki Kultur Etxean.

Biharkoan, *Fatimeu La Llamada del desierto* bideo-emanaldia izango da 18:00etan eta 20:00etan. Etzi, berriz, *Ekuador bihotzean* gaia hartuta mahai ingurua izango da 19:00etan Kultur Etxean.

## iragarki laburrak ▶

**BASABI Inmobiliaria**

Pablo Gorosabel, 40  
Laguna - 7. Inbalegia  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 95 87  
mug.: 669 368 994

**Alegia.** Eraikuntza berriko pabilioiak. 350m<sup>2</sup>etatik hasita.

**Anoeta.** 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

**Belauntza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

**Belauntza.** Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Berastegi.** Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700m<sup>2</sup> solairuko.

**Berrobi.** Behe solairuko etxebizitza. 50 m<sup>2</sup>koa. 117.200 euro.

**Irura.** San Migel plaza. Atikoa. 76m<sup>2</sup> erabilgarriak.

**Irura.** Eraikuntza berriko etxebizitza eta apartamentua salgai garaje eta trasteroarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela 1eko apartamentua. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** Errementari kalean, 3

logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugelarekin. Guztiz berritua.

**Tolosa.** Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m<sup>2</sup>ko egongela, bainugela eta sukaldea.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, kanpora begirako 100m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Ugaren Goena, bi bizitzako baserria salgai, 110m<sup>2</sup> ditu solairu bakoitzak. Berritu beharrean dago.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m<sup>2</sup>ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Maituna zaharra, 15 garaje berri eta itxiak, 30m<sup>2</sup>tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitzeko.

MAIDER GOÑI ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

# «Atarian euskara erabiltzen da, baina lan munduan asko dago egiteko»

## Kontseiluak eta Leitzaldeko Udalek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten atzokoan, Bai Euskarari Ziurtagiria elkarrekin sustatzeko helburuz

NAIARA GARZIA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez enpresek euskararekiko konpromisoa adierazten diote gizarteari. Leitzaldean, hau da, Goizueta, Arano, Areso eta Leitzan, jada 79 erakundek dute ziurtagiria. Maider Goñi Euskara teknikariarekin hitz egin du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK honen inguruan.

**Akordioan zer sinatzen da?** Aurreko urtekoaren antzekoa da. Alde batetik erakundearen asmoa azaltzen da, eta gero guri Kontseiluak zenbat orduko laguntza emango digun zehazten da.

**Azkenekoz UEMA, Euskara Zerbitzua eta Kontseiluaren arteko elkarlana bultzatzeko hitzarmena egin zenuten.**

Bai, atzo sinatutakoa, berriz,

Kontseiluak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen arteko hitzarmena da.

**Azken honetan zer bailara sartzen dira?**

Gure Euskara Zerbitzuak ez dauka erakunde izaerarik. Bai Euskarari egitasmoa Leitzaldean bakarrik dago, baina Ultzamaldeak, Larraunaldeak eta Leitzaldeko euskara zerbitzuak Nafarroako gobernua diren laguntza jasotzeko mankomunitate bat osatzen dugu: Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea. Honen izenean sinatu dugu, beraz, hitzarmena. Ultzamaldeak eta Larraunaldeak parte ez hartu arren.

**Kontseiluak aholkularitza zerbitzua eskaintzen dizute.**

Bai, hitzarmenean euskararen normalizaziorako bi aldean ar-



N. GARZIA

teko asmoa adierazten da eta gero alde ekonomiko dago: aholkularitza zerbitzua ematen digute eta hori da ordaintzen dena.

**Aholku hauek nolakoak izaten dira?**

Gutun ereduak bidaltzen dizkigute, fitxak... baina lan gehiena euskara zerbitzuak egiten du.

**Zuri honek guztiak zer lan suposatzen ditu?**

Dezente. Sustapena eta balorazioa egiteko pertsona bat kontratatzen da eta hau gainbegiratu behar duzu. Eta gero jarraipenerako urtean zehar egin behar diren ekintza batzuk zehazten dira, hau da, eragite plan bat egiten da.

**Balorazioa egiten duen pertsona horren lana zein da?**

Eragileengana joatea, Bai Euskarari egitasmoa aurkeztea eta ahal bada jendea animatzea. Lehendik daukatenei ebaluazioa egiten die.

**Aipatu duzun eragite plan honen barruan ze ekintza antolatuko dituzte?**

Ziurtagiria dutenei gutun bat

bidaltzen zaie gabonak aldera duten konpromisoa gogorazteko gero gabonetan postal bat eginen dugu eta herri osoan banatuko dugu. Karrape irratian ere txapelketaren bat eginen dugu honen inguruan, eragileren bati elkarrizketaren bat, aurreko urtean ere eskolan marrazki batzuk egin zituzten, eta aurten ere zerbait antolatuko dute, hizkuntza eskubidearen inguruko hitzaldiren bat, Marmarin erreportaia abenduan... zozketaren bat ere egin nahiko genuke... baina oraindik erabat zehaztu gabe dago.

**Gabonetako postala nolako izanen da?**

Alde batean Areso eta Leitzako eragilearen argazki bat aterako da eta beste aldean Goizueta eta Aranokoa. Eta gabonak zorionduko ditugu, bidenabarrean. Etxe guztietan banatuko dugu, denek honen berri izan dezaten.

**Leitzaldean izandako erantzuna ona izan al da?**

Nire ustez, oso ona. Bortzirriaren gehiago dira, baina beste eskualde gehienetan, gutxiago. Sakanan, adibidez, hasi ginenean, 34 besterik ez ziren, eta hemen 76 dira eta askoz txikiagoa da.

**Ziurtagiria sinatzeak zer suposatzen du?**

Konpromisoa betetzea eta diru kontua, ziurtagiria ordaindu egin behar baita, erakundearen tamainaren arabera.

**Diru hori gero zertan erabiltzen da?**

Ebaluazioa egiteko erabiltzen dela uste dut, hau da, pertsona bat kontratatzen da, eragileek konpromisoak bete dituzten edo ez ikusteko.

**Bai Euskarari Ziurtagiriaren helburu orokorra zein da?**

Euskararen normalizazioa lortzea esparru guztietan, lan munduan, merkataritzan... eta gizarte eragileen bidez burutzen saiatzen gara helburu hau.

**Oraindik lan asko egiteko al dago?**

Bai, dena dago egiteko. Atarian euskara erabiltzen da, baina lan munduan asko dago egiteko: paperak, etiketak... ◀

## Bai Euskarari Ziurtagiriaren aldeko ituna

**N. Garzia** ▶ Bai Euskarari Ziurtagiriaren aldeko hitzarmena sinatu zuten atzo arratsaldeko 18:00etan udaletxean Patxi Saenzek, Leitzako alkateak, Mikel Baraibarrek, Aresokoak eta Xabier Mendigurenek, Kontseiluko ordezkariak. Euskararen sendotasuna gero eta nabarmenagoa zela azaldu zuten Leitzako alkateak eta Xabier Mendigurenek, berarekin bat egin zuten Leitzaldeko lana beste leku batzuentzako eredu bihurtu zela esatean, «herritarrek eta Udalak elkar hartuta egindako lana» baita. N. GARZIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 29a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **13** hotzena **10** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**  
(balantzak argitzeko, harpidetun egiteko...)

**AGENDA ▶**

**24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA**

**Tolosa.** Gaurko egitaraua: Leidorantzokian, 12:00etan eta 15:00etan, Cucaramcara (Costa Rica) taldearen *Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes*. 18:30ean, Titeres etcetera (Andaluzia, Espainia) taldearen *Pedro y el lobo*. Kasinoan, 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, La gotera de la azotea (Andaluzia, Espainia) taldearen *La gallina Churra*. Kultur Etxean, 10:30ean, 15:00eta eta 17:00etan, Varna Pupp Theatre (Bulgaria) taldearen *Pulgarcita*. Ferialekuan, 11:00etan eta 15:00etan, Naku (Venezuela) taldearen *Aguazul*. 20:30ean eta 22:30ean, Taun Taun teatroa talde euskaldunaren eskutik, *Batuta*.

**DEIALDIAK**

**Aitzo.** *Nola eraman artikuluazioen higadura* hitzaldia 17:00etan udaletxena.  
**Tolosa.** *Elikadura osasuntsuaren garrantzia haurtzarora* solasaldia, 18:00etan Laskorain ikastolan, Ana Elbustoren eskutik. Gurasoei zuzenduta

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jubilatuen tabernan, Pilartxo Eloseggi tolosarraren koadro erakusketa ikusgai, abenduaren 10era arte.  
**Tolosa.** Matxin Labaien margolariaren oleozko pinturak ikusgai Lanbroan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Irauli uhinak*.  
**21:00-23:00.** *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Zaindariaren omenez

**TOLOSA ▶** Zaindariaren Astea egin dute Hirukiden, adin guztietakoentzat ekitaldi ugariarekin; Echavarrrik eta Etxezarretak 25 urte bete dituzte irakasle lanetan



Zaindariaren omenezko astearen baitan, DBHko lehen zikloko pintxo lehiaketa. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**H**irukide ikastetxearentzat hilabete berezia izan ohi da beti azaroa. Aspaldiko usadioari eutsiz, Eskolapioen sortzaile San Jose de Calasanz-en Astea ospatzen dute, ekitaldiz beteriko egitarauarekin. Adin guztietakoek egiten diote omen, era batera zein bestera, Calasanz-i.

*Kalasanz kalasanz, gure zaindaria...* Ikastetxeko ikasle nahiz ikasle ohiek gogoan izango dute ziurrenik doinu hau, Zaindarien Astearen zehar hainbeste entzuten dena. Egin-dako ekintzen artean, ostiralean Batxilergoko bigarren mailako ikasleekin meza ospatu zuten, aurtengoa azken eskola festa dute eta.

Ondoren, lankide guztiek bazkaria izan zuten, Fronton jatetxean eta bertan Jokin Biddarratz alkatea eta Andoni Imaz Kirol zinegotzia izan ziren. Bi irakaslerentzat egun berezia izan zen: Asun Etxezarretarentzat eta Maite Echavarrrentzat, hain zuzen. Izan ere duela 25 urte ekin zioten euren lanari ikastetxe honetan. Hori dela eta, opari bana jaso zuten biek ala biek.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
Atzo 25 urte elkarri «bai, nahi det!» esan zenietela. Zorionak eta, nola ez, eskerrik asko zuen bi urteen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN**  
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza **LEITZAN**  
Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea  
**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**